

Familia agurgarriak.

Lehenik eta behin, hastear dagoen kurtsoari begira, gure indar eta ilusio guztia helarazi nahi dizkizuegu. Zalantzaz josia eta erronkaz betea dagoen arren, ziur gaude hemendik ere irakaspen positibo asko jasoko ditugula.

Une honetan, Herrikiden bi helburu nagusi ditugu:

- Ikasleen **heziketa** beharrei modu egokian erantzutea.
- Hezkuntza komunitatearen Osasuna **zaintzea** eta Covid-19aren **hedatzea ekiditea**.

Bi erronka hauek, ahalik eta hobekien uztartzeko, ikastetxeko urteko plana eta kontingentzia plana osatu dugu. Jarraian datorrena agiri mardul honen laburpena da, baina inork agiri osoa nahi izanez gero, ikastetxera eskaera egin eta helaraziko zaizue.

Familioi eskatzen dizuegu, ikastetxera etorri aurretik, agiri hau zuen seme-alabekin batera irakur dezazuela.

Eusko Jaurlaritzak pandemiaren hedapenaren **3 agertoki** aurreikusi ditu:

1. Erabat aurrez aurrekoa
2. Aurrez aurrekoa erdizka.
3. Konfinamendua

Ikasturtea aurrez aurre hasiko dugu eta aldaketaren bat egin beharko balitz, Osasun Publikoko Zerbitzuek adierazitakoan egingo litzateke.

Lehen eguneko ordutegia hauxe izango da:

DBH 1	Irailak 7	10:00-12:00
DBH 2	Irailak 7	10:30-12:30
DBH 3	Irailak 15	9:00-11:00
DBH 4	Irailak 15	9:30-11:30
Batxi 1	Irailak 15	10:00-12:00
Batxi 2	Irailak 15	10:30-12:30


Lehenengo egunaren ondoren, ikastalde bakoitzak bere ohiko ordutegia jarraituko du goiz eta arratsaldez, batxilergoan izan ezik.

Garbitasun neurriei dagokienean, hauexek dira jarraibideak:

- Gelak ahalik eta gehien aireztatu beharko dira.
- Maskara (higienikoa) uneoro egoki jantzita eraman beharko da. Maskara ekartzen ez duenak, maskara bila etxera joan beharko du edo idazkaritzan berria eskuratu ahal izango du 1 €-ren truke.
- Eskola aldian eskuak maiz garbitu beharko dira (gutxienez 5 aldiz garbitzea gomendatzen da). Komunetako ura, xaboa eta paperezko zapiez gain, hainbat tokitan gel hidroalkoholikoa jarriko da.
- Begiak, sudurra eta ahoa ukitzea saihestu behar da, eta ez tul edo doministiku egitean ahoa eta sudurra ukondoarekin estaliko dira.
- Janaria edo edalontziak ezingo dira partekatu. Bakoitzak bere janaria ekarriko du eta edateko bere botila. Ura ikastetxeko iturrietan bete ahal izango da.

Ikastetxeko instalakuntzen erabilera. Maila ezberdinen eta gelen arteko harremana ahalik eta gehien murriztuko da. Horretarako, ondorengo aldaketak erabaki ditugu:

- Sarrerak eta irteerak:



- Korridore eta eskaileretan beti eskuinetik ibili beharko da, dauden marrak eta geziak errespetatuz; atea irekita egongo dira, ukitu beharrik ez izateko, eta beti elkarren arteko 1,5 metroko tarte utziz.
- Komunetako aforoa 2 lagunekoa izango da eta markatuta dauden komunak eta konketak ezingo dira erabili. Komunak garbi mantentzea inoiz baino garrantzitsuagoa da. Komunean pilaketarik ez izateko, saio tarteak ekidin eta saioan bertan baimena eskatuta joan beharko da.
- Idazkaritzan kristalezko leihatilatik egingo da harrera eta zain dagoenak 1,5 metroko distantzia errespetatu beharko du.
- Polikiroldegiko aldagelak ezin izango dira erabili.
- Gelan, mahaiak banaka kokatuko dira eta bakoitzak izendatutako tokia izango du eta ezingo da bertatik mugitu.
- Ikastetxean ahalik eta tresna gutxien erabiltzen saiatuko gara. Norberak bere motxila ekarriko du, erabiltzen ez dituen gauzak bertan sartuta, eta mahai ondoan zintzilik izango du. Materiala ezingo da partekatu. Eskola garaia amaitzean, DBH 1 eta 2 mailako ikasleek gauzak uzteko mahai azpiko apala erabili ahal izango dute eta DBH 3tik gorako ikasleek gauzak takiletan utzi beharko dituzte
- Familiak, irakasle batekin hitz egin ahal izateko, hitzordua eskatu beharko du, eta ahal izanez gero, komunikazioa modu telematikoan edo telefonoz egingo da.

Sarrera eta irteerei dagokienez, ondorengo neurriak hartuko ditugu:

- Orduategia:

maila	sarrera	irteera	patioa
DBH 1	8:05 / 15:05	13:15 / 17:00	11:00-11:35
DBH 2	8:00 / 15:00	13:10 / 16:55	10:55-11:30
DBH 3	8:05 / 15:05	13:15 / 17:00	10:00-10:30
DBH 4	8:00 / 15:00	13:10 / 16:55	10:05-10:35
Batx 1	8:05	15:00 / 14:15	9:53-10:08 12:05-12:25
Batx 2	8:00	14:55 / 14:10	9:53-10:08 12:00-12:20

- Ikasle bakoitzak dagokion korridoretik eta dagokion orduan sartu eta irten beharko du. Ez da berea ez den korridoretik ibiliko.
- Patio garaian ezingo da ikastetxe barruan geratu. Txanda bakoitzean 2 mailatako ikasleak bakarrik egongo dira. Pilaketak ekiditeko, orduak zorrotz betetzeaz gain, igotzeko eta jaisteko uneetan arreta berezia jarriko da. Patio garaian maila bakoitzeko ikasleak bereizita egongo dira: kurtso bat goiko patioan egongo da eta besteak beheko patioan egon beharko du; astero txanda aldatuko dugu.
- Patioan ezingo da taldeko jolasetan jolastu (baloiarekin, pilotarekin...).

Jangelan neurri hauek hartuko dira:

- Erabiltzaile bakoitzak bere tokia izendatuta izango du.
- Ordu-tegi eta txanda hauek errespetatuko dira:
 - o DBH 2: 13:15
 - o DBH 1: 13:20
 - o DBH 3: 13:45
 - o DBH 4: 13:50
- Banaka sartuko dira, ilaran, 1,5 metroko tartea errespetatuz. Ontziak eta mahaitresnak jangelako zainzaileak banatuko ditu eta ikasleek ez dute berea ez den ezer ukituko. Jatekoa sukaldariak ikasle bakoitzari bere erretiluan banatuko dio.
- Bazkal osteko tartean, ikasleak patioan egongo dira dagokien neurriak beteaz. Liburutegia itxita egongo da.

Eskolaz Kanpoko jarduerarik oraingoz ez da antolatuko, Eusko Jaurlaritzak hala aholkatu duelako.

Covid-19aren kudeaketari dagokionean, ondorengo protokoloa jarraituko dugu:

Ondorengo egoera hauetakoren batean daudenek ezingo dute ikastetxera joan:

- Hauetako sintomaren bat dutenek:
 - 37 gradutik gorako sukarra.
 - ez-tul lehorra.
 - ez-tarriko mina.
 - arnasa hartzeko zailtasuna.
 - usainik edo dastamenik ez izatea.

Beraz eskolara etorri aurretik, etxean tenperatura hartu behar da eta sintomarik ez duela ziurtatu.

- COVID-19aren diagnostikoa jaso ondoren isolatuta daudenek.
- Etxeko berrogeialdian daudenek.
- COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituen pertsona batekin harreman estua izan dutenek

Ikastetxean daudela, aurreko sintomarik agertuz gero:

- Horretarako prestatutako isolamendu-gelara joango dira.
- Ikastetxea ikaslearen familiarekin harremanetan jarriko da, etxera eramateko.
- Ikastetxeak Prebentzio Zerbitzuko arlo medikuari jakinaraziko dio.
- Familia bere osasun zentroarekin harremanetan jarriko da, haren jarraibideak betetzeko.

Kasuak baieztatuz gero:

- Kasu positibo gisa detektatutako ikaslearen guraso edo tutoreek berehala jakinaraziko diote ikastetxeko zuzendaritzari.
- Ikastetxea Osasun Erakunde Sanitarioarekin harremanetan jarriko da.
- Kontaktuen azterketa egingo da familiaren laguntzaz.
- Kontaktuak aztertu eta estutzat jotzen direnentzat berrogeialdiko neurriak ezarri ondoren, besteekin irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraituko dute, arreta-neurriak zorrotz eta zainza pasiboa eginez

Kasu bat baino gehiago agertuz gero:

- Larritasun egoera desberdinen arabera, Osasun Publikoko Zerbitzuak arrisku-ebaluazio bat egingo du eta honen arabera neurri desberdinak hartuko dira.
- Neurri hauek guztiak ikasle eta familiei komunikatuko zaie dagokien unean.
- Kontaktuen miaketa errazteko garrantzitsua da ikaslea gela bakoitzean beti toki berean esertzea.

Ikusten duzuenek, neurri ugari dira, eta eguneroko martxan neurri horietako batzuk zehazteko eta egokitzeko beharra sor liteke. Egoera hau modurik egokienean aurrera eramateko, garrantzitsua da heziketa komunitate osoaren inplikazioa. Horregatik, familia eta ikasleonek ere garrantzitsuak dira. Aholku edo proposamenik izanez gero, Gurasoen Elkartearen bidez, telefono bidez edo herrikide12-18@herrikide.eus posta elektronikoren bidez helarazteko aukera duzue.

Zuen laguntza eskertuz, besarkada batekin agurtzen zaituztegu.

Zuzendaritza Taldea

Queridas familias.

En primer lugar, de cara al curso que está a punto de comenzar, queremos transmitir toda nuestra fuerza e ilusión. Aunque está plagado de dudas y lleno de retos, estamos seguros de que desde aquí también recibiremos muchas enseñanzas positivas.

En este momento, tenemos dos objetivos principales de Herrikide:

- Responder adecuadamente a las necesidades educativas del alumnado.
- Velar por la salud de la comunidad educativa y evitar el despliegue del Covid-19.

Para conciliar lo mejor posible estos dos retos, hemos completado el plan anual del centro y el plan de contingencia. Lo que sigue es un resumen de este voluminoso documento, pero si alguien quiere el documento completo, realizar la petición al colegio y os la enviaremos.

Os pedimos a las familias que, antes de acudir al centro, leáis este documento junto con vuestros hijos e hijas.

El Gobierno Vasco ha previsto **3 escenarios** de difusión de la pandemia:

1. Totalmente presencial
2. Presencial a medias.
3. Confinamiento

Comenzaremos el curso de forma presencial y si hubiera que hacer alguna modificación se realizaría cuando lo indiquen los Servicios de Salud Pública.

El **horario del primer día** será el siguiente:

1º ESO	7 de septiembre	10:00-12:00
2º ESO	7 de septiembre	10:30-12:30
3º ESO	15 de septiembre	9:00-11:00
4º ESO	15 de septiembre	9:30-11:30
1º BACH	15 de septiembre	10:00-12:00
2º BACH	15 de septiembre	10:30-12:30


Tras el primer día, cada curso seguirá su horario habitual de mañana y tarde, excepto en bachillerato.

En cuanto a las **medidas de higiene**, las instrucciones son las siguientes:

- Las clases deberán ventilarse a menudo.
- Llevar en todo momento la mascarilla (higiénica) correctamente puesta. Quien no traiga la máscara, deberá ir a casa a buscarla o podrá adquirir una nueva en la secretaría por 1 €.
- El lavado de manos será frecuente durante el periodo escolar (se recomienda un mínimo de 5 lavados). Además del agua de los aseos, jabón y pañuelos de papel, se colocará gel hidroalcohólico en diferentes puntos.
- Hay que evitar el contacto con los ojos, la nariz y la boca, y al toser o estornudar se cubrirán la boca y la nariz con el codo.
- La comida o los botellines no se podrán compartir. Cada uno traerá su comida y su botella para beber. El agua se podrá rellenar en las fuentes del centro.

Uso de las instalaciones del centro. La relación entre los diferentes niveles y las aulas se reducirá al máximo. Para ello, hemos decidido las siguientes modificaciones:

- Entradas y salidas:



- En los pasillos y escaleras se deberá circular siempre por la derecha, respetando las marcas y flechas existentes, manteniendo las puertas abiertas para evitar tocar y manteniendo siempre una separación de 1,5 metros entre ellas.
- El aforo de los aseos será de 2 personas y no se podrán utilizar los baños y lavabos marcados. Mantener limpios los baños es más importante que nunca. Para evitar aglomeraciones en el baño, habrá que evitar acudir en los cambios de clase y pedir permiso durante la clase.
- La recepción en secretaría se realizará desde la ventanilla acristalada y durante la espera se respetar una distancia de 1,5 metros.
- No se podrán utilizar los vestuarios del polideportivo.
- En el aula, las mesas se ubicarán individualmente y a cada uno se le asignará un sitio y no se podrá mover de él.
- Trataremos de utilizar la menor cantidad posible de objetos en el centro. Cada uno traerá su mochila, las cosas que no usa las meterá en ella, y la tendrá colgada junto a la mesa. El material no se podrá compartir. Al finalizar las clases, los alumnos de 1º y 2º de ESO podrán utilizar el cajón de la mesa para dejar las cosas y los alumnos a partir de 3º de ESO deberán dejar las cosas en las taquillas.
- La familia, para poder hablar con un profesor, deberá pedir cita, y si es posible, la comunicación se hará de forma telemática o telefónica.

En cuanto a las **entradas y salidas**, se tomarán las siguientes medidas:

- Horario:

CURSO	ENTRADA	SALIDA	PATIO
1º ESO	8:05 / 15:05	13:15 / 17:00	11:00-11:35
2º ESO	8:00 / 15:00	13:10 / 16:55	10:55-11:30
3º ESO	8:05 / 15:05	13:15 / 17:00	10:00-10:30
4º ESO	8:00 / 15:00	13:10 / 16:55	10:05-10:35
1º BACH	8:05	15:00 / 14:15	9:53-10:08 12:05-12:25
2º BACH	8:00	14:55 / 14:10	9:53-10:08 12:00-12:20

- Cada alumno o alumna deberá entrar y salir por el pasillo correspondiente y a la hora correspondiente. No andará por un pasillo que no sea el suyo.

- Durante el tiempo de patio no podrá quedarse dentro del edificio. En cada turno sólo habrá alumnos de 2 cursos. Para evitar aglomeraciones, además de cumplir los horarios, se prestará especial atención a los momentos de subida y bajada. En el tiempo de recreo los alumnos de cada curso estarán separados: un curso estará en el patio superior y el otro deberá estar en el patio inferior; cada semana cambiaremos de turno.
- En el patio no se podrá jugar a juegos grupales (con balón, pelota).

En el **comedor** se tomarán las siguientes medidas:

- Cada usuario tendrá asignado su lugar.
- Se respetarán los siguientes horarios y turnos:
 - o ESO 2:13:15
 - o ESO 1:13:20
 - o ESO 3:13:45
 - o ESO 4:13:50
- Entrarán individualmente, en fila, respetando la distancia de 1,5 metros. Los recipientes y cubiertos serán repartidos por el cuidador del comedor y los alumnos no tocarán nada que no sea suyo. El cocinero repartirá la comida a cada alumno en su bandeja.
- En el espacio post comida, los alumnos estarán en el patio cumpliendo las medidas correspondientes. La biblioteca permanecerá cerrada.

No se organizará ninguna **actividad extraescolar** de momento pues así lo ha aconsejado el Gobierno Vasco.

En cuanto a la **gestión de Covid-19**, seguiremos el siguiente protocolo:

No podrán acudir al centro quienes se encuentren en alguna de las siguientes situaciones:

- Que presenten alguno de los siguientes síntomas:
 - Fiebre superior a 37 grados.
 - Tos seca.
 - Dolor de garganta.
 - Dificultad respiratoria.
 - Ausencia de olor o gusto.

Por tanto, antes de venir al colegio, se deberá tomar la temperatura y asegurar que no presenta ningún síntoma.

- Aislados tras el diagnóstico del COVID19.
- Los que están en cuarentena doméstica.
- Personas que han tenido una relación estrecha con una persona con síntomas compatibles con el COVID-19

En caso de aparición de síntomas en el centro:

- Acudirán a la sala de aislamiento habilitada al efecto.
- El centro se pondrá en contacto con la familia del alumno para llevárselo a casa.
- El centro comunicará al área médica del Servicio de Prevención.
- La familia se pondrá en contacto con su centro de salud para seguir sus instrucciones.

Si se confirma el caso.

- Los padres o tutores del alumno detectado como caso positivo lo comunicarán inmediatamente a la dirección del centro.
- Si se confirma el caso, el centro realizará un estudio de los contactos con la ayuda de la familia.
- Tras analizar los contactos y establecer medidas de cuarentena para aquellos que se consideren cercanos, las actividades docentes con los demás continuarán con normalidad, extremando las precauciones y la vigilancia pasiva

En caso de concurrencia de varios casos:

- En función de las diferentes situaciones de gravedad, el Servicio de Salud Pública realizará una evaluación de riesgos en función de la cual se tomarán diferentes medidas.
- El centro comunicará a la Organización Sanitaria Integrada.
- Todas estas medidas se comunicarán al alumnado y a las familias en el momento que corresponda.
- Para facilitar la exploración de los contactos es importante que el alumno se sienta siempre en el mismo lugar en cada clase.

Como veis, son numerosas las medidas y en la marcha diaria podría surgir la necesidad de concretar y adaptar algunas de estas. Para llevar a cabo esta situación de la manera más adecuada, es importante la implicación de toda la comunidad educativa. Por eso, las aportaciones de las familias y de los alumnos también son importantes. Si tenéis algún consejo o propuesta, podéis hacerlo a través de la Asociación de Padres y Madres, por teléfono o a través del correo electrónico herrikide12-18@herrikide.eus.

Agradeciendo vuestra ayuda, os saludamos con un abrazo.

Equipo Directivo